

Lehen ^{1.}
Hezkuntza ^{2.}

Sortzera gonbidatu

Eremuak



HEZKUNTZA
ARTISTIKOA




NATUR
ZIENTZIAK



GIZARTE ETA
HIRI BALIOAK

Helburuak, aukerak, ideiak eta kontzeptuak

- 1.** Hondakinak zer diren jakitea. Hondakin-mota ezberdinak identifikatzea eta ondo bereiztea.
- 2.** Bereizketa eta birziklapenaren garrantzia gogoraraztea.
- 3.** Kontsumo arduratsua, hondakinen murrizketa eta birziklapenera bideratutako jarrerak sustatzea.
- 4.** Birziklapenaren gainean ditugun ohituren inguruko hausnarketa pertsonala bultzatzea.



Lehen 1.
Hezkuntza 2.

Sortzera gonbidatu


1. jarduera
Munduaren
Bizitzari
Begira

● Jarduera hau zertarako da?

3 arauak ikasteko, ontziak ondo bereizten ikasteko, gero haiek birziklatzeko, eta ez bada zuzen birziklatzen zein ingurumen-arazo sortzen den ikasteko

● Zer behar dugu?

Ikasleek beren etxeetatik ekarriko dituzten era guztietako ontziak eta "3 arauen" inguruko fitxa hau.



● Zer egingo dugu?


Etxean eta eskolan zein hondakin sortzen ditugun guztion artean pentsatu eta zerez eginak dauden (plastikoa, kartoia...). "3 arauen" kartelean oinarriturik murriztu, berrerabili eta birziklapen kontzeptuak eta horien garrantzia erreperasatuko dugu.

Ondoren, gela sei taldetan banatuko dugu eta ikasleek etxetik ekarritako ontzietako bat emango diogu talde bakoitzari. Zer ekintza proposatzen duzue murrizteko? Berrerabiltzeko? Eta birziklatzeko?

Lehen 1. Hezkuntza 2.

Sortzera gonbidatu

1. jarduera Munduaren Bizitzari Begera



Murriztu

Beharrezkoa ez den hondakina sortzen dutenen kontsumoa ekiditea.

Karroa erabili, errazago eramango duzu erosketa etxeraino.

Birziklatu


Material berberak behin eta berriz erabiltzea, produktu berri bat sortzeko beste prozesu natural edo industrial batean integratuz.

Ba al zenekien 80 latarekin bizikleta baten haguna egin daitekeela?


Berrerabili

Objektu bat bota aurretik beste erabilera batzuk ematea.

Ontziak edo kartoia erabil dezakezu zure jostailuak egiteko.



HAU DA ARAUA: MB²



jarraituko dugu?

Berrerabilpenaren "B"-a praktikan jartzeko eskulan-tailer bat egin dezakegu, gero gelan ikusgai jartzeko. Amaitzeko, aurre-ideiak bildu eta abesti bat sor dezakezue, bereizketa eta birziklapena sustatu eta 3 arauak gogoratuko dituen.

Lehen ^{1.}
Hezkuntza ^{2.}

2. jarduera
Errikmo onean!

Sortzera gonbidatu

● **Jarduera hau zertarako da?**

Hondakin mota ezberdinak ezagutzea eta hauek berrerabiltzea.

● **Zer behar dugu?**

Etxean sortzen diren hondakin batzuk jasoko dira. Jogurt potoak, gaileta kaxak, plastikozko botilak, edari txapak, arroza...

● **Zer egingo dugu?**

Hondakinak edukiontzi horira, urdinerara eta berdera bota baino lehen, berrerabili daitezke. Eta oraingo honetan instrumentu batzuk sortuko dira.

Jogurt potoak eta arroza erabilia maraka batzuk sortuko dira.

Gaileta kaxak moztu eta animaliak marraztu daitezke.

Hauen barruan txapak itsasiko dira eta kaskaineta polit batzuk sortuko dira.



Jarraituko dugu?

Taldeak sortuko dira eta kurtso amaieran emanaldi bat egin daiteke. Talde batzuk abestu eta beste batzuk instrumentuak jo, besteei birziklapenaren garrantzia erakusteko.